## PLAZAK ESLEITZEA ETA ORDAINTZEKO MODUA



**Onartutakoen zerrenda** udal webgunean argitaratuko da, eta Basauriko eta San Migeleko HAZen bulegoetan ere jarriko da, **2024ko maiatzaren 17an.** Interesdunei ez zaie inolako jakinarazpenik bidaliko. Zerrenda hori behin-behinekoa izango da.

**Behin betiko zerrenda 2024ko maiatzaren 31n** argitaratuko da.

**Ordainketa egin beharko da izena emateko unean bertan, autolikidazio-prozedura baten bitartez.** Izena emateko lineako inprimakia bete eta gero, interesdunak ordainketa egin beharko du ordainketa-pasabidean, kreditu-txartelarekin. Horretarako, klik egin beharko du emandako helbide elektronikora bidaliko dugun mezuan egongo den estekan. Bulegoetan egindako izen-emateen kasuan ere, kreditu-txartel bidez ordaindu beharko da.

**Haur hezkuntzan, gutxienez 10 parte-hartzaile** beharko dira taldea sortzeko, eta **lehen hezkuntzan, 12**. Basauriko Udaleko Kultura Atalak toki kopurua banatu edo egokitu ahalko du izen-emateen osteko egoerara moldatzeko; eta programa garatzeko proposatutako tokiak ere aldatu ahalko ditu, Udalaren beste lokal edo toki batzuetara.

## BILERA INFORMATIBOA

**Bilera informatiboa** egingo da **Social Antzokian, ekainaren 20an, 18:00etan.** Bertan informazio osagarria eskaini eta udalekuen funtzionamenduari buruzko arauak argituko ditugu.

## ASIGNACIÓN DE PLAZAS Y FORMA DE PAGO



El **listado de inscripciones de admitidos** se publicará en la web municipal y en el SAC de Basauri y de San Miguel el día **17 de mayo de 2024,** pero no se enviará comunicación alguna. Dicho listado tendrá carácter provisional.

El **listado definitivo** se publicará el día **31 de mayo de 2024.**

**El pago se exigirá en el momento de hacer la inscripción mediante un proceso de autoliquidación.** Una vez rellenado el formulario on-line de inscripción, automáticamente se recibirá un email en el correo electrónico especificado con el enlace a la pasarela de pago donde la persona interesada deberá realizar el pago mediante una tarjeta bancaria. En el caso de las inscripciones presenciales, la forma de pago será también mediante tarjeta bancaria.

En **infantil,** será necesario como **mínimo 10 participantes** para la creación del grupo, y en **primaria, 12.** El Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Basauri se reserva el derecho a distribuir o adecuar el número de plazas según la realidad constatada tras la inscripción, así como a variar las ubicaciones propuestas para el desarrollo del programa, estableciendo otras dependencias municipales para su celebración.

## REUNIÓN INFORMATIVA

El día **20 de junio a las 18:00 horas,** se celebrará una **reunión informativa en el Social Antzokia,** para ofrecer información complementaria y explicar las normas de funcionamiento de las colonias.

## ZENBATEKOA

Hona hemen txanda bakoitzeko prezio publikoak:

| TARIFAK | 1. TXANDA Uztailaren 1etik 12ra | | | 2. TXANDA Uztailaren 15etik 26ra | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Egun erdiko udalekuak | Egun osoko udalekuak | Kirol udalekuak | Egun erdiko udalekuak | Egun osoko udalekuak | Kirol udalekuak |
| 1. seme-alaba | 53€ | 99€ | 114€ | 48€ | 90€ | 102€ |
| 2. seme-alaba | 41€ | 75€ | 83€ | 37€ | 66€ | 77€ |
| 3. seme-alaba | 33€ | 59€ | 67€ | 30€ | 53€ | 61€ |
| 4. seme-alaba eta ostekoak | 29€ | 48€ | 53€ | 26€ | 43€ | 48€ |
| "Diru-Sarreren Bermerako Errenta"ren edo "Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera" jasotzaileak (edo izapidetze bidean dutenak) | 7€ | 12€ | 14€ | 6€ | 9€ | 11€ |
| Indarreko urtean GLL edo Aldizkakoak ez diren Laguntzen jasotzaileak (edo izapidetze bidean dutenak) | 6€ | 6€ | 6€ | 6€ | 6€ | 6€ |

## EZEZTAPENAK ETA ALDAKETAK

**Eskabidea bakarrik** ezeztatu ahal izango da izena emateko epearen barruan (maiatzaren 2tik 12ra).

**Maiatzaren 20tik 24ra** bitartean, biak barne, erreklamazioak eta aldaketak egin ahal izango dira (ez ezeztapenak), baldin eta ordaindutako prezioan aldaketarik eragiten ez badute, aukeratutako udalekuaren modalitatearen arabera.

**Maiatzaren 27tik aurrera,** ez da inolako ezeztapenik edo aldaketarik onartuko. Beraz, ordaindutako kuotak baino ez dira itzuliko, aldez aurretik hala eskatuta, eta **parte-hartzaileak gaixorik daudenean edo istripuren bat izan duenean bakarrik, betiere mediku agiriz justifikatuta,** eta azken batean Kultura Atalak berrikusi eta onartuta.

## PRECIOS

Los precios públicos son los siguientes por cada turno:

| TARIFAS | PRIMER TURNO Del 1 al 12 de julio | | | SEGUNDO TURNO Del 15 al 26 de julio | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Colonias de medio día | Colonias de día | Colonias Deportivas | Colonias de medio día | Colonias de día | Colonias Deportivas |
| 1er Hijo/a | 53€ | 99€ | 114€ | 48€ | 90€ | 102€ |
| 2º Hijo/a | 41€ | 75€ | 83€ | 37€ | 66€ | 77€ |
| 3er Hijo/a | 33€ | 59€ | 67€ | 30€ | 53€ | 61€ |
| 4º Hijo/a y sucesivos/as | 29€ | 48€ | 53€ | 26€ | 43€ | 48€ |
| Perceptores de "Renta de Garantía de Ingresos" o "Ingreso Mínimo Vital" (o en tramitación) | 7€ | 12€ | 14€ | 6€ | 9€ | 11€ |
| Perceptores durante el año en curso de AES o ANPM (o en tramitación) | 6€ | 6€ | 6€ | 6€ | 6€ | 6€ |

## CANCELACIONES Y MODIFICACIONES

**La solicitud sólo se podrá cancelar** dentro del plazo de inscripción (del 2 al 12 de mayo).

**Del 20 al 24 de mayo,** ambos inclusive, se podrán realizar reclamaciones y modificaciones siempre que las mismas no supongan una variación en el precio abonado en función de la modalidad de udaleku elegida, pero no cancelaciones.

**A partir del 27 de mayo,** no se admitirá cancelación ni modificación alguna, por lo tanto solamente se realizarán devoluciones de las cuotas abonadas previa solicitud y **únicamente en supuestos de enfermedad o accidente de los participantes, justificados medicamente** que deberán ser en cualquier caso revisados y aceptados por el Departamento de Cultura.



# Udalekuak 2024

Basauriko Udalaren udalekuetan zuon seme-alabentzako ekintza erakargarriak antolatu ditugu. Euren artean euskaraz jardun ahal izango dute tailer tematikoetan, aire zabalean, igerilekuetan, txangoetan eta abar.

En las colonias de verano que organiza el Ayuntamiento de Basauri tus hijos e hijas podrán disfrutar de una oferta de actividades atractivas mientras se relacionan en euskera, mediante talleres temáticos, juegos al aire libre, salida a las piscinas, excursiones, etc.



## NORK HAR DEZAKE PARTE?

**2012-2020. urteen artean (biak barne) jaiotako haurrek, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera Basaurin erroldatuta badaude.** Onartu ere egingo da gurasoak banatuta edo dibortziatuta egon eta haurrak udalerrian erroldatuta egon ez arren, gurasoetako bat bertan erroldatuta duten haurren izen-ematea (kasu honetan dibortzio-epaia edota hitzarmen erregulatzailea aurkeztu beharko da).



## ¿QUIÉNES PUEDEN PARTICIPAR?

**Niños y niñas nacidos/as entre los años 2012-2020, ambos inclusive, empadronados/as en Basauri desde el 1 de enero de 2024.** También se admitirán las inscripciones de aquellos niños/as, hijos/as de padres/madres separados/as o divorciados/as, que aún no estando dichos menores empadronados en el municipio de Basauri, si lo estuviera alguno de sus progenitores (en este caso deberá presentarse sentencia de divorcio o convenio regulador).

## EGUTEGIA

Udalekuak bi txandatan banatuko dira:

1. txanda: uztailaren 1etik 12ra.
2. txanda: uztailaren 15etik 26ra.

## CALENDARIO

Las colonias se distribuirán en dos turnos:

1.º turno: del 1 al 12 de julio.
2.º turno: del 15 al 26 julio.

## LEKUAK ETA ORDUTEGIAK
## LUGARES Y HORARIOS

Udalekuak udal ikastetxe publiko eta gizarte zein kultura etxe horietan egingo dira:

Los espacios físicos en los que se llevarán a cabo las colonias serán centros educativos de la red pública del municipio y centros cívicos y culturales, con la distribución que a continuación se detalla:



### Egun osoko udalekuak
### Colonias de día

**Ordutegiak:** Astelehenetik ostiralera, 09:00-17:00 bitartean, bazkaria barne. (08:30etik aurrera zentrora joateko aukera egongo da. Ordu hori baino lehen ez da haurrik hartuko.)

**Horarios:** Lunes a viernes de 09:00 a 17:00 horas con comida incluida. (Posibilidad de acudir al centro a partir de las 08:30 horas. Antes de esa hora no se acogerá a ningún niño o niña.)

| Tokia / Lugar | Jaiotze Urtea Fecha de Nacimiento |
|---|---|
| Arizko ikastola | 2018-2020 |
| Bizkotxalde Primaria | 2016-2017 |
| Soloarte | 2012-2015 |
| Sofia Taramona | 2012-2020 |

### Egun erdiko udalekuak
### Colonias de medio día

**Ordutegiak:** Astelehenetik ostiralera, 09:30-13:30 bitartean, bazkaria kanpo. (09:00etatik aurrera zentrora joateko aukera egongo da. Ordu hori baino lehen ez da haurrik hartuko.)

**Horarios:** Lunes a viernes de 09:30 a 13:30 horas. La comida no está incluida. (Posibilidad de acudir al centro a partir de las 09:00 horas. Antes de esa hora no se acogerá a ningún niño o niña.)

| Tokia / Lugar | Jaiotze Urtea Fecha de Nacimiento |
|---|---|
| Arizko ikastola | 2018-2020 |
| Basozelai Centro Cívico | 2017-2020 |
| Sofia Taramona | 2018-2020 |

### Kirol udalekuak
### Colonias deportivas

Eskulanak, ur-jarduerak, adierazpeneko kirol askotakoak, psikomotrizitatea, txangoak, igerilekuak, futbol-zelaiak...

**Ordutegiak:** Astelehenetik ostiralera, 09:00-17:00 bitartean, bazkaria barne. (08:30etik aurrera zentrora joateko aukera egongo da. Ordu hori baino lehen ez da haurrik hartuko.)

Manualidades, actividades acuáticas, multideportivas de expresión, psicomotricidad, excursiones, piscinas, campos de fútbol...

**Horarios:** Lunes a viernes de 09:00 a 17:00 horas con comida incluida. (Posibilidad de acudir al centro a partir de las 08:30 horas. Antes de esa hora no se acogerá a ningún niño o niña.)

| Tokia (Lehenengo txanda) / Lugar (Primer turno) | Jaiotze Urtea Fecha de Nacimiento |
|---|---|
| Basozelai-Gaztelu ikastetxea | 2012-2013 |
| Jose Etxegarai | 2014-2017 |
| **Tokia (Bigarren txanda) / Lugar (Segundo turno)** | |
| Basozelai-Gaztelu ikastetxea | 2012-2017 |

## IZENA EMATEKO PROZEDURA

**Izena ematea Internet bidez:** Izena eman beharko da Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan (https://sede.basauri.eus/index.php/eu), horretarako prestatutako lineako inprimakia beteta eta bidalita.

### Epea: maiatzaren 2tik 12ra

**Salbuespenez,** izen-ematea modu horretan egiteko baliabide elektronikoak ez dituztenek, HAZen bulegora etorri ahalko dute: udaletxeko beheko solairuko bulegora, 09:00etatik 19:30era bitartean; eta Pagasarri kaleko HAZera, 09:00etatik 14:00etara bitartean. Horretarako, baina, **aurretiazko hitzordua** hartu beharko dute, 94.466.63.00 zenbakian edo udaletxeko beheko solairuko HAZen bulegoan jarritako txartel-makinan. Hitzordua, noski, izena emateko epe barruan hartu beharko dute.

Hezkuntza-premia bereziak dituztenek eskaera-orrian zehaztu beharko dute ekintzak egokiro egiteko zein beharrizan duten. Era berean, elikaduraren arloko edozein beharrizan espezifiko ere jaso beharko da.

**Prezio publiko murriztua** aplikatzeko arrazoirik balego **(Diru-Sarreren Bermerako Errentaren edo Bizitzeko gutxieneko Diru-Sarreren jasotzaileak edota GLL edo aldizkakoak ez diren laguntzen jasotzaileak, indarrean dagoen urtean),** hala jaso beharko da izena ematean. **Dirulaguntzaren jasotzaileak eta izena ematen duenak pertsona bera izan beharko du.**

Ezarritako epearen barruan egindako eta parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten inskripzio guztiak onartuko dira, ez da zozketarik egingo.

**Epez kanpo ez da inskripziorik onartuko.**

## PROCEDIMIENTO DE INSCRIPCIÓN

**Inscripción a través de Internet:** La inscripción se realizará a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Basauri https://sede.basauri.eus/index.php/es rellenando y enviando el formulario on-line preparado al efecto.

### Plazo: del 2 al 12 de mayo

**Excepcionalmente,** si algunos de los interesados no dispone de los medios electrónicos necesarios para realizar la inscripción, podrá tramitarla de forma presencial en las Oficinas de atención ciudadana –SAC– situadas en la planta baja de la Casa Consistorial (09:00 a 19:30) y en San Miguel en la calle Pagasarri (09:00 a 14:00). Para ello, será necesario **cita previa,** la cual se podrá solicitar a través del teléfono 94.466.63.00 o mediante la máquina expendedora que se ha instalado a la salida de la Oficina de atención ciudadana –SAC– situada en la planta baja de la Casa Consistorial, siempre dentro del plazo de inscripción.

Los usuarios/as con necesidades educativas especiales deberán especificar en la solicitud las necesidades que requieran para la correcta celebración de las actividades. Asimismo, se deberá indicar cualquier necesidad alimenticia específica.

En caso de acogerse a algún motivo de **reducción del pago del precio público (perceptores Renta de Garantía de Ingresos o Ingreso Mínimo Vital y/o perceptores durante el año en curso de Ayudas de Emergencia Social o Ayudas No Periódicas)** deberá hacerlo constar en el momento de la solicitud. **La persona perceptora de algunas de las ayudas será quien deba realizar la inscripción.**

Todas las inscripciones realizadas dentro del plazo establecido y que cumplan los requisitos de participación, serán admitidas, no habrá sorteo.

**No se admitirán inscripciones fuera de plazo.**